HERRI MUSIKAREN 16. JARDUNALDIAK

2017 OIARTZUN
DONOSTIA

KULTUR ONDAREAREN KUDEAKETA ETA HEDAPENA

MARTXOAK 29-31
Informatika Fakultatean (Donostia)

IKASTAROA*
Arratsaldean 15:30-19:30
Gerrit van der Veer
Vrije Universiteit Amsterdam

APIRILAK 1, larunbata
Manuel Lekuona Udal Bibliotekan

MINTEGIA 9:30etan*
Rosa Ramírez
ODEI S.A.
Maddalen López de la Calle
Elhuyar Fundazioa
Miguel García/Jorge del Río
Wikimedia España

BAZKARIA
13:00etan Ibargain elkartean
Bazkaria 10 € kostatzen da.

MINTEGIA 15:00etan*
Manel Barcons Carbonell
Museu de la Música de Barcelona
M. Concepción Losada Vázquez y Sergio de la Ossa
Arquivo do Patrimonio Oral da Identidade
Alfonso Fernández
Muséu de la Gaita de Gijón

KONTZERTUA 18:30etan*
ARTAnTXURIKETA
Ama-alabak. Ahozko transmisioa
Maria Jesus Zugarramurdi
Arantxa Ansa Zugarramurdi
Ainhoa Ansa Zugarramurdi
Maider Ansa Zugarramurdi

APIRILAK 2, igandea
Manuel Lekuona Udal Bibliotekan

MINTEGIA*
Goizeko 10:00etan
Isabel Hernando Collazos
EHU - Zuzenbide fakultatea
Gerrit van der Veer
Vrije Universiteit Amsterdam

BAZKARIA
13:30etan Ibargain elkartean
Bazkaria 10 € kostatzen da.

* OHARRAK: Mintegiak eta kontzertuak Oiartzungo Manuel Lekuona Udal Bibliotekan izango dira. Ikastaroan parte hartzea, mintegietan bezala edo kontzertura joatea bezala, doakoa da, baina lekua mugatua denez aurretik izena eman behar da. Horretarako julio.abascal@ehu.eus helbidera idatzi.

Beste edozein zalantzarako jarri Soinuenearekin harremanetan:

Telefonoa: +34 943 493 578
ePosta: soinuenea@soinuenea.eus

ANTOLATZAILEAK:
SOINUENEA Herri Musikaren Txokoa
egokituz Behar Berezitarako Gizaki-Konputagailu Elkarrekintza Laboratorioa
eman ta zabal zazu Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
BABESLEA:
OIARTZUNGO UDALA

HERRI MUSIKAREN 16. JARDUNALDIAK

KULTUR ONDAREAREN KUDEAKETA ETA HEDAPENA

DONOSTIA eta OIARTZUN, 2017ko martxoaren 29tik apirilaren 2ra

Kultur ondarearen kudeaketa eta hedapenari buruzko Jardunaldiak eta Ikastaroa

SOINUENEA-Herri Musikaren Txokoak herri musika inguratzen duten gaiak aztertuko dituen topagunea izateko asmoz 2002tik urtero Oiartzunen ospatzen diren "Herri Musika Jardunaldiak" antolatzen ditu. Aurtengo edizioa "Kultur ondarearen kudeaketa eta hedapena" da. Oraingoan, antolakuntzan Soinuenea-Herri Musikaren Txokoak EHU/UPV-ko Egokituz: Behar Berezitarako Gizaki-Konputagailu Elkarrekintza Laborategiaren laguntza izan du.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien garapenak azken urteetan interneten bidez publiko zabalaren esku kultur ondarearekin lotuta dagoen sekulako multimedia eduki pila jartzea ahalbidetu du. Antropologo, musikologo, eta abarrek jasotako eduki horren zati handi bat lehen artxiboetan (batzuetan pribatuak) gordetzen zen eta horietara pertsona bakan batzuk zuten sarrera.

Ondareari buruzko multimedia informazioaren hedapen unibertsalak berau era masiboan zabaltzea ahalbidetzen du ikerketa erraztearekin batera. Aldi berean, eduki honen biltzaileei hainbat zalantza sortzen zaie: nola kudeatzen da biltegi digital publiko bat? Nola ezagutarazi behar da informazio hau webean bilatu eta aurkitua, ulertua eta erabilia izateko aukera izateko? Behin publiko egindakoan, zein da eduki horren jabegoari eragiten dion legedia? Zabaldu ezin den materialik ba al dago? Eta abar.

Jardunaldien nahia da galdera hauek buruan dabilzkitenak arazo hauei era batera edo bestera aurre egin eta nolazpaiteko konponbidea eman dietenekin elkartzea. Helburua hizlari ezberdinek aurkeztutako esperientzia eta emaitzetatik abiatuz hausnarketarako bidea ematea da.

Jardunaldien aurretik Gerrit van der Veer maisuak (Dept. Computer Science, Vrije Universiteit Amsterdam) kultur ondarearen zenbait alor partekatzeko web guneak nola sor daitezkeen azaltzeko ikastaro bat emango du (ingelesez) era praktikoan. Horretarako, ikastarora datozenek ekarritako material eta edukiez baliatuko da.

AURKEZPENA

Kultura: egoera intelektual, gauza material edo adostutako jarduera proiektu, delako materia hori; zenbaitetan, nahita edo nahi gabe, bertako partaide eta beregandik banaezina den gizartearen alor batek gutxietsia, argi eta garbi hainbat aldetatik iker daitekeen gaia da. Honek aberastasun paregabea eransten dio pentsaera eta oinordetzan emandako ondare aniztasunarengatik.

Kultura herrikoia egoera berrietara moldatzen den bezala, joandako garaietako moda iragankorren eta sorketa berrien (bizia eta zentzua ematen diotenak, bera ulertzeko era ezberdin guztiei etenik gabe bizirauenez) nahaste-borrastea, aparatu akademiko, ikertzaile eta zientifikoa hornitzen duten bitartekoek itxura, aurkezpena, emandako informazioa aldatu dute; kopuruari bezala ezaugarriei dagokionean.

Hala ere, garrantzitsua da kudeaketa ezartzeko, hedapena pentsatzeko, edo ekonomi zein giza baliabideak, aurrerapena maila orokorrean bermatzeko... ikerketa, katalogazioa eta gaia inguratzen duenaren ezagutza tazitua kontuan hartu behar direla, eta honek eman beharreko hurrengo urratsen oinarria izan behar du.

Kultur Ondarearen barruan hainbat atal daude, izendapen aldetik orekatu gabe egon badaitezke ere hala itxuratu dira azken 50 urte baino gehiagotan. Historikotik Naturalera pasa ginen; Dokumentaletik Ukiezinera. Elkarrekin lotura izan edo ez, garrantzitsuena ondare hori gordetzen duen gizartearentzat duen berezko balioa izango da.

Gertuko ondarea, nabari dena eta aldi berean ukiezina dena, (komunitate batek egin eta gordetzen duena, zenbaitetan ohiturak berak bultzatuta), behin eta berriro indartzen bada ere, ikerketa, katalogazio eta biltegiratzeko metodologiak teknologiak jarritako erritmoaren arabera aldatu dira eta jarraitzen dute aldatzen. Lan egiteko eta aurkezteko era hobetzen duten aldaketak; azken aurkezpena eguneratzeko balio duten aldaketak.

Gizartean, komunitatean gertuko elementuak, normalean izaera identitarioa dutenak (eraikuntza bat, natur parke bat, dokumentu biltegi bat edo festa bat), ondare bihurtzeko egon daitekeen gogoak ez du oinarritzat aldagai kontziente bat izaten, historian zehar bizirik irauteko sinesmen kolektibo bat baizik. Historia motza, azken finean, baina bere hedapenarekin, kudeatzearen, burutzearen, gordetzearen bidez sostengua sortuko duten helburu bat edo batzuk bilatzen ditu.

Baina kudeatzeko sistema ezinezkoa da identifikazioaren, bitartekaritzaren eta hedatzearen arteko loturarik ez badago. Kudeaketa hori lantzean aldeko aldagai moduan azal daiteke helburu ugari izatea. Kontuan hartu beharrekoa da: kudea daitekeen elementu bakoitzak beregan aritzeko hainbat era onartzen ditu. Ez da berdina ukigarria den zerbait (nahiz eta berekin ukiezinak diren nabardurak izan) edo ukiezina den beste bat (ziurrenik ukigarriak diren alderdi asko dituena).

Kudeaketa, aurkezpen eta zuzenbidearen alorretan dagoen loturaren bila, Jardunaldi hauetan informazioaren transmisioak berekin dakartzan gaur egungo erronkei aurre egiteaz gain etorkizuneko lanen oinarriak jartzeko balio behar luketenak antolatzen alor hauetako asko jorratzen dituzten hainbat pertsona ospetsu bilduko dira. Honela ukigarria denetik (museoetako ondarea) ukiezina denera (musika eta ahozko ondarea) pasako gara. Edo soinu-tresnen datu-base batetik multimedia edukien erabilgarritasun eta jabetzara.

EMILIO XABIER DUEÑAS

(Soinuenean itzulia)

EGITARAUA

IKASTAROA

Kultur ondarea web bidez zabaltzeari buruzko ikastaro praktikoa

Informatika Fakultatea. UPV/Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel Lardizabal 1, 20018 Donostia

Irakaslea: Gerrit van der Veer (Vrije Universiteit Amsterdam, Open University Netherlands)
Izenburua: "*Diffusion of the cultural heritage through the web. A practical course*"
Hizkuntza: Ingelesa
Datak: 2017ko martxoaren 29tik 31ra
Ordutegia: 15:30tik 19:30ra
Lekua: Informatika Fakultatea (UPV/EHU)

Oharra:
Parte hartzea doakoa da, baina laborategiaren edukiera mugatua da. Izena emateko aukera irekita egongo da edukiera bete arte.
Izena emateko, parte hartu nahi duenaren datuak mezu batean bidali behar dira hona:
Julio Abascal julio.abascal@ehu.eus

NOLA IRITSI INFORMATIKA FAKULTATERA



Iristeko informazio gehiago hemen.

MINTEGIAK ETA KONTZERTUA

Kultur Ondarearen Kudeaketa eta Zabaltzeko IKT-ak

2017ko apirilaren 1 eta 2
Manuel Lekuona Udal Biblioteka, Oiartzun

2017ko apirilak 1

9:30-10:00 Juan Mari Beltran (Soinueneako zuzendaria) eta Emilio X. Dueñas (Soinuenea Lantaldearen koordinatzailea): *"Ongietorria eta jardunaldien aurkezpena: testuingurua eta helburuak"*.

10:00-10:30 Rosa Ramírez (ODEI S.A.): "*EMSIME, Sistema de gestión documental del Patrimonio Mueble de los museos del Inventario General de Euskadi"*.

10:30-11:00 Maddalen López la Calle (Elhuyar Fundazioa): "*Ondarebideak, aplicación para la gestión del Patrimonio Cultural*".

11:00-11:30 Mahai-ingurua eta kafea

11:30-12:30 Miguel García/ Jorge Galván del Río (Wikimedia España): "*Experiencia de inclusión de la Fonoteca del Museo de Urueña en Wikimedia*".

12:30-13:00 Mahai-ingurua

13:00-15:00 Bazkaria

15:00-15:45 Manel Barcons Carbonell (Museu de la Música Bacelona-ko kontserbatzailea): "*MIMO: una base de datos on-line sobre instrumentos musicales en colecciones públicas*".

15:45-16:00 Mahai-ingurua

16:00-16:45 M. Concepción Losada Vázquez eta Sergio de la Ossa (Arquivo do Patrimonio Oral da Identidade): "*El Arquivo do Patrimonio Oral da Identidade del Museo do Pobo Galego: una experiencia de archivo de patrimonio tradicional musical y oral de Galicia en la red*".

16:45-17:15 Mahai-ingurua eta kafea

17:15: 18:00 Alfonso Fernández (Muséu de la Gaita de Gijón-ko zuzendaria): "*La experiencia del Archivo de la Música Tradicional Asturiana. Museo del Pueblo de Asturias-Museo de la Gaita de Gijón*".

18:00-18:15 Mahai-ingurua

18:30 **Herri kanten emanaldia: ARTAnTXURIKETA, Ama alabak.**
Ahozko transmisioa. Maria Jesus Zugarramurdi, Arantxa, Ainhoa eta Maider Ansa.

2017ko apirilak 2

10:00-11:00 Isabel Hernando Collazos (Revista sobre Patrimonio Cultural-eko zuzendaria. Zuzenbide Fakultatea, UPV/EHU): "*Disponibilidad y propiedad de la información multimedia sobre el patrimonio cultural en la legislación*".

11:00-11:30 Mahai-ingurua eta kafea

11:30-12:30 Gerrit van der Veer (Vrije Universiteit Amsterdam (VUA), Dept. Computer Science): "*Internet as a window for preserving and showing the cultural heritage*" [hitzaldia ingelesez emango da].

12:30-13:00 Mahai-ingurua

13:30-15:00 Bazkaria

NOLA IRITSI MANUEL LEKUONA UDAL BIBLIOTEKARA



Iristeko informazio gehiago hemen.

ANTOLATZAILEAK

SOINUENEA
Herri Musikaren Txokoa

egokituz
Behar Berezitarako Gizaki-Konputagailu
Elkarrekintza Laboratategia

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

BABESLEA

OIARTZUNGO
UDALA

SOINUENEA FUNDAZIOA Tornola kalea, 6 20180 Oiartzun

Tel: 943 493 578 Email: soinuenea@soinuenea.eus Web: www.soinuenea.eus